

DONOSTIAK GABONAK ARGITUKO DITU BERE **IRAGANARI OMENALDIA EGIN ETA ETORKIZUNERA** **BEGIRATZEN DUEN AMETS BATEKIN**

- *Hiriaren historia errepasatzen duen “Donostia Ametsetan” drone ikuskizunak eta Izaroren emanaldiak osatuko dute Gabonetako piztearekin amaituko den inaugurazioa, Iñaki Gabilondoren eskutik.*
- *Familia osoari zuzendutako Miramar Magikoa ikuskizuna, Gabonetako Azoka tradizionaleko izotz pista edo Donostiako Orfeoiaaren kontzertu hirukoitza izango duen “Gabonetan Musika” zikloa dira Donostiako Gabonetarako zenbait aukera.*
- *Aurtengo Gabonetako kanpainak indartu egingo du jasangarritasunarekiko, kalitatearekiko eta tokiko dinamizazioarekiko konpromisoa.*

Donostiak datorren azaroaren 28an emango die ongietorria Gabonei, 19:30ean, donostiarrak eta bisitariak ere hunkituko dituen inaugurazio batekin. 500 droneko “Donostia Ametsetan” ikuskizuna izango da Donostia Sustapenak antolatu duen Gabonetako kanpainaren abiapuntua, eta ekitaldiak urtarilaren 6ra arte luzatuko dira, hiriko auzo guztietan, berrikuntzaren, jasangarritasunaren, elkartasunaren eta kalitatearen ardatz nagusien inguruan.

Inaugurazio ekitaldia udaletxeko terrazan egingo da aurten ere eta Izaroren emanaldi berezi batekin hasiko da, Gabonen funtsa ezin hobe islatzen duten zenbait kantarekin, artistaren “Gabonetan” diskokoak denak.

Ondoren, "Donostia ametsetan" iritsiko da, 500 dronerekin hirirako bereziki diseinatutako ikuskizuna. Flock Drone Art Studioko droneek Donostiako historia errepasatuko dute, narratiba iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin lotuz eta hiriaren idiosinkrasia eta balioak errespetatuz. Ikuskizunak Gabonetako Kanpaina piztuko du.

Hiriko lehen irratia izan zen Radio San Sebastián-ek ehun urte betetzen dituen honetan, Iñaki Gabilondo, hiriko enbaxadore bikaina eta hamarkadatan zehar donostiarrei lagun egin dien ahotsa, izango da hiria piztuko duen eta publiko guztiei zuzendutako esperientziaz beterik egongo den programazioa abian jarriko duen botoia sakatuko duen pertsona.

“Donostiako Gabonak emozioa, kultura eta tokiko garapena uztartzen dituen esperientzia paregabe bihurtu dira. Gabonen inaugurazioa erreferentzia bat da honezkero eta komunitate sentimendua indartzen duen hiriko ekitaldi moduan finkatu da”, adierazi du Ane Oyarbidek, Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotziak.

MIRAMAR MAGIKOA: BIDAIA BAT NATURA ARGITUAN

Donostia Sustapenaren Gabonetako kanpainaren elementu berri nagusietako bat “Miramar Magikoa” izango da. Abenduaren 4tik urtarrilaren 5era, Miramar Jauregiko kanpoaldea fantasiaz beteko da intsektuei omenaldia egiten dien familiarteko esperientzia bat bizitzeko; izan ere, intsektuak ezinbestekoak izan dira gure ekosistemen garapenean duela 400 milioi urte sortu zirenetik.

700 metroko ibilbidean zehar, ikuskizunak biodibertsitatea ezagutzeko gonbidapena luzatzen du, artearen, argiaren eta teknologiaren bitartez. Murgiltze esperientzia horrek kulturaren, zientziaren eta jasagarritasunaren arteko lotura are gehiago sendotuko du.

Esperientziaz gozatzeko sarrerak azaroaren 21etik aurrera erosi ahal izango dira Puntu Dendan (Gipuzkoa Plaza, 7) 10:00etatik 13:00era edo Gabonetako kanpainaren webgunean: www.donostiagabonetakoazoka.eus. Abenduaren 4tik aurrera, Miramar Jauregiko txarteldegian ere erosi ahalko dira, 17:30etik aurrera. “Miramar Magikoa” ikuskizunaren ordutegia 18:00etatik 22:00etara izango da.

ARGIAK, ARTEA ETA MAGIA BAZTER GUZTIETAN

Hiriko auzo guztietako ia ehun kaletan ipiniko diren bostehun argi elementutik gora piztuko dira Gabonetan hiria janzteko. Guztira, 169 arku, 181 argizko apaingarri faroletan, 227 zuhaitz apaindu eta bost zoruko elementu piztuko dira diseinua eta energia efizientzia bilduko dituen argiztapen dotorean, LED teknologia eta energia berriztagarrien kontsumoa baliatuz.

Aurtengo berrikuntzen artean, Bretxako merkatuko fatxadaren argiztapena nabarmentzen da, bere negozioen bidez kanpainaren babesle berria baita (Arenal, Forum Sport, McDonald 's, Miniso, Sicos, Fitness Park eta Lidl), beste eraikin enblematiko batzuekin batera, hala nola Udaletxea, Maria Cristina Hotela edo Victoria Eugenia Antzokia. Era berean, Alde Zaharrak apaingarri bateratuak estreinatuko ditu kale guztietan. San Martzial kaleak, bere aldetik, zenbait motibotako arkuak estreinatuko ditu ere, eta Askatasunaren hiribideak zintzilikari berri bat izango du izar forman.

Aurten ere ez dira faltako Alderdi Ederreko lorategiak eraldatuko dituen Baso Argitua, inaugurazioaren ondoren ipiniko den 18 metroko pinu ikaragarriarekin, eta Zurriola hiribideko Gabonetako Bola ibilgarria, argazki gehien jasoko dituen ikonoetako bat, 17:45etik 23:00era arteko argi eta soinu ikuskizunekin.

GABONETAKO AZOKA, NORIA ETA IZOTZ PISTA

Gabonetako Azokak ere hilaren 28an zabalduko ditu ateak, 71 etxolarekin errekorra apurtuz, Frantzia pasealekuaren eta Ramon Labayen plazaren artean banatuta. Plaza horretan, gainera, Azoka Gastro autoktono bat osatuko da 13 etxolarekin, eta bertako produktuak dastatzeko aukera emango dute, zenbait pergolarekin estalita egongo den dastaketa eremu berezi batean.

Azoka guztiak elektrizitate berdearekin funtzionatuko du, eta apaingarri ederrez eta material berrerabilgarriez hornituta egongo da, 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Ohikoa den moduan, etxoletan sasoi honetako produktu tipikoak eskainiko dira: dekorazioa, artisautza, elikadura eta opariak. Era berean, etxola batzuk erakunde solidario eta inklusiboentzat gorde dira, besteak beste, Zaporeak, Aita Mari edo Mi Dulce Guerrero.

Pasa den hilaren 14tik funtzionatzen ari da jada 32 metroko noria Alderdi Ederren, eta hor egongo da urtarilaren 31ra arte. 24 kabina erdi itxi ditu, eta 144 bidaiarientzako edukiera. Horrez gain, mugikortasun arazoak dituztenentzako sarbidea eta kabina egokitua ere baditu.

Aurtengo Merkatuko berrikuntzetako bat Frantzia Pasealekuko izotz-pista izango da, 10* 30eko neurriekin eta izotz naturalarekin. Hilaren 19ra arte, astegunetan, goizez erreserba duten taldeentzat izango da eta arratsaldez publiko guztiarentzat. Asteburuetan eta jaiegunetan goizez eta arratsaldez irekita egongo da publiko guztiarentzat. Eta hilaren 19tik aurrera, goizez eta arratsaldez irekiko da publiko guztiarentzat.

Gabonetako Azokak berriro neurtu egingo du karbono aztarna, etorkizunean isurpenik gabeko Gabonetara iristeko konpromisoari eutsiz.

MUSIKA, KIROLA ETA ELKARTASUNA

Espiritu solidarioa, Donostia Sustapenaren Gabonetako kanpainaren oinarri nagusietako bat, hainbat ekimenetan islatuko da: adinekoei zuzendutako triziklo paseoak “Bizikletaz Adinik Ez” ekimenarekin eta tokiko elkarteek laguntzeko zenbait ekintza.

Musika ere protagonista izango da “Musika Gabonetan” zikloari esker, musikaren kultura sustatzen duen Gabonetako giro atsegina sortuz. Abenduaren 20tik 28ra, Bulebarreko Kioskoa eta Ramon Labayen plaza “Zure Lehen Eszenatokia” izango dira, bertako musikari gazteei zuzendutako “Musika Gabonetan” programa barruan, tokiko talentua, sormena eta herritarren partaidetza ikusgarri egiteko.

Zikloa Donostiako Orfeoien doako kontzertu hirukoitzarekin osatuko da Amaran (Familia Santuaren Eliza, abenduak 20, larunbata, 20:30ean), Egian (Santa Maria Magdalena eta Asisko San Frantzisko Parrokia, abenduak 26, ostirala, 20:30ean) eta Altzan (San Martzial Parrokian, abenduak 27, larunbata, 19:30ean) kanpainak egiten duen kulturaren eta talentu musikaren aldeko apustuaren seinale.

Eta abenduaren 23an, Kontxako hondartzan, “Gabonak Hondartzan” ekimenaren edizio berri bat antolatuko da. Fortuna kirol elkartearekin batera prestatzen den haurrentzako kirol jardunaldi ludiko honek dibertsioa, ingurumen sentsibilizazioa eta inklusioa batuko ditu eszenatoki paregabe batean. Ordutegia 10:30etik 13:00etara izango da, eta erloju-azpian zuzeneko inskripzioa egingo da.

Abenduaren 26tik urtarilaren 5era, Gabonetako kanpainak Donosteam ekitaldiaren edizio berrian ere lagunduko du, zientziak, teknologia eta artea gaztetxoenen artean sustatzeko, Kursalen antolatuko diren ikastaro, lanegi, erakustaldi eta aisialdirako eremuei esker.

TOKIKO INPAKTUA IZANGO DUTEN GABONAK

Udalak, Donostia Sustapenaren bitartez, antolatzen duen Gabonetako kanpainak 24,7 milioi euroko inpaktu ekonomiko zuzena sortu zuen iaz, horietako 24,3 milioi kanpainaren inguruan mugitu ziren herritarren eta bisitarien gastua izanik.

Ane Oyarbide Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotziaren esanetan, “datu horiek argi uzten dute Gabonetako kanpainak jardura komertzial eta turistikoaren motor gisa duen garrantzi gero eta handiagoa. Pertsona bakoitzak Donostiako Gabonak propio bezala sentitzea nahi dugu. Argiak, musika, azoka eta ikuskizunak parte hartzeko gonbidapena ere izan daitezela, partekatzeko eta hiria hunkiduraz eta kide izatearen harrotasunaz bizitzeko”, amaitu du zinegotziak.

GABONETAKO PROGRAMAZIOA

Gabonetako programazio guztia www.donostiagabonetakoazoka.eus webgunean argitaratuko da, "Gabonak Zuretzat" Gazteria departamentuaren programazioa barne, aurkezten denean, auzoko hirietan garatuko diren ekintzen berri emateko.

ESKERRAK

Gabonetako Kanpainak erakunde babesle eta laguntzaile publiko-pribatuen kopurua handitu du eta hurrengo erakundeei esker izan da posible:

Babesleak

Euskadi Basque Country, Kutxabank, Telpark, Teusa, Campezo, Moyua, Hotel María Cristina, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea, Bataplán – Café de la Concha, Bretxa, Garbera, La Perla, Victoria Eugenia Antzokia – Donostia Kultura, SShops, Casa Eceiza, Eroski.

Laguntzaileak

Lur Kolektiboa, Aita Mari, Aspace, Gipuzkoako Jaiotzen Elkartea, BAE, Doplay, El Diario Vasco, Fortuna, Kursaal, Mi Dulce Guerrero, Donostiako Orfeoia, Donostiako Musika eta Dantza Eskola, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa, Ucrania Euskadi, Donostia Gipuzkoa Basket Fundazioa, Zaporeak, "Gabonak Zuretzat - Donostia Gazteria".

Alderdi Ederreko inaugurazioaz gozatzeko aholkuak.

Inaugurazioa behar bezala eta segurtasunez garatu ahal izateko, ibilgailuen trafikoa itxita egongo da Bulebarretik 18:45etik aurrera. Portu aldean, Mollaberria kalea moztuko da ere egun osorako, eta beren itsasontzietara sartu nahi duten pertsonak 16:30era arte sartu ahalko dira bakarrik. Era berean, Bulebarra, Hernani kalea, Andia kalea eta Cervantes plaza eta Erlojuak lotzen dituen bidegorriaren zatia ere moztuko da.